



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko irailaren 15a

102. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Miguel Servet Fundazioari egindako gomendioen jarraipenari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egin (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Miguel Servet Fundazioari egindako gomendioen jarraipenari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 6an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Miguel Servet Fundazioari egindako gomendioen jarraipenari buruzko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Miguel Servet Fundazioari egindako gomendioen jarraipenari buruzko fiskalizazio-txostenaren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea (10-20/CCO-00029).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko irailaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Miguel Servet Fundazioari egindako gomendioen jarraipenari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (3. or.).
 - II. Miguel Servet Fundazioa (3. or.).
 - III. Helburuak eta norainokoa (4. or.).
 - IV. Konklusioak eta gomendioak (5. or.).
 - IV.1. Miguel Servet Fundazioaren kudeaketari buruzko alderdi orokorrak (5. or.).
 - IV.2. Kontuen Ganberak Miguel Servet Fundazioari buruz 2016ko irailean emandako txosteneko gomendioen betetze-mailaren jarraipena (9. or.).
 - IV.3. Legezketasunaren berrikuspena langileen eta ondasun eta zerbitzuen kontratazioan (11. or.).
 - IV.4. Amaierako konklusioa (11. or.).
- Eranskina. Kontuen Ganberak Miguel Servet-Navarrabiomed Fundazioari buruz 2016ko irailean emandako txosteneko gomendioen betetze-mailaren txosteneko konklusioak (12. or.).
- Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (15. or.).
- Behin-behineko txostena dela-eta aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna (15. or.).

I. SARRERA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2020ko urriaren 13an egindako bilkuran, erabaki zuen Nafarroako Kontuen Ganberari eskatzea *“Miguel Servet Fundazioari eta Nafarroako Foru Komunitateko osasun-ikerketara publikoaren finantza-iturriari buruzko fiskalizazio txosten bat (2016-2020 aldiari buruzkoa)”* egin zezan.

2016ko irailean, Kontuen Ganberak Miguel Fundazioari (hemendik aurrera, Fundazioa) buruzko txosten bat egin zuen, zeinean aztertzen baitzituen nolako antolaketa zuen osasun-ikerketara publikoak Nafarroan, Fundazioaren kontuak eta haren jardura. Txosten hartan egindako gomen-dioen jarraipen bat egin dugu.

Txostenak lau atal dauzka, sarrera hau barne; bigarrenean, txosten honen alderdi orokorrak, helburuak eta norainokoa jaso dira; hirugarrenean, berriz, eginiko lanaren konklusioak bildu dira. Eranskin bat ere jaso dugu, gai honi buruz Kontuen Ganberak 2016ko martxoan egindako txostenaren konklusioak biltzen dituena.

Lan hori apirilean eta maiatzean egin zuen auditoretzako teknikari batek eta auditore batek osatutako lantaldeak, Kontuen Ganberaren zerbitzu juridikoekin, informatikoekin eta administrati-boekin lankidetzan.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, lan honen emaitzak ezagutzera eman ziren, Fundazioaren Patronatuko lehendakariak eta Navarrabiomed-Miguel Servet Fundazioko zuzendariak alegazioak egin zituzten.

Kontuen Ganberak emandako epean, alegazioak aurkeztu ditu Navarrabiomed-Miguel Servet Fundazioko zuzendariak. Alegazio horiek argipenak dira, eta behin betiko txostenari erantsi zaizkio.

Eskerrak ematen dizkiegu Fundazioko langileei, lan hau egitean emandako laguntzarengatik.

II. MIGUEL SERVET FUNDAZIOA

Nafarroako osasun-ikerketara publikoa Osasun Departamentuaren mende dago eta, funtsean, Fundazioaren eta Nafarroako Osasun Ikerketarako Institutuaren (IdiSNA) bitartez artikulatzen da.

Miguel Servet Fundazioa fundazio pribatu moduan eratu zen irailaren 26ko 211/1986 Foru Dekretuaren bitartez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren (NFKA, aurrerantzean) babeslearen pean.

Gero, 2006ko maiatzaren 2an, Nafarroako Gobernuak fundazio publikoaren izaera eman zion, eta NFKAren sektore publikoan barneratu zuen.

Fundazioa Foru Komunitateko osasun administrazioaren laguntza zientifiko eta teknikorako organismo baten gisara eratu zen, bereziki irakaskuntza-jardueretan eta osasunaren arloko ikerketaren sustapenean jarduteko. Fundazioak gaitasun juridiko osoa du, bai eta bere helburuak betetzeko gaitasun osoa ere.

Ikerketa Biomedikorako Zentroa (IBZ), 1994an inauguratua, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko (O-NOZ) profesionalen ikerketarako zentro tekniko bat zen. 2007an, ikerketa areagotu eta hobetzeko, 2007-2011 aldirako Ikerketarako Plan Estrategikoa garatu zen, eta Nafarroako Gobernuak Ikerketa Biomedikorako Zentro berri bat sortzea onetsi zuen.

Uztailaren 18ko 62/2012 Foru Dekretuaren bitartez, O-NOZen estatutu berriak onetsi ziren. Horren ondorioetako bat Ikerketa Biomedikorako Zentroa desagertzea izan zen. Desagertze horren ondorioz, beharrezko gertatu zen Fundazioaren estatutuak aldatzea, zentro horren eginkizunetatik batzuk bere gain har zitzan, Gobernuaren 2012ko uztailaren 18ko Erabakian onetsi zen bezala.

Une horretatik aurrera, IBZk Navarrabiomed izena hartu zuen, eta jada entitate bakar bati buruz hitz egin daiteke: Miguel Servet-Navarrabiomed Fundazioa, prestakuntzaren eta ikerketaren arloetan diharduena.

Patronatuko kide guztiak NFKAkoak edo Nafarroako Unibertsitate Publikokoak dira.

Fundazioari buruz ari garela, aipatu behar dugu haren urteko kontuak auditatu egiten direla, eta, gainera, 2017tik aurrera, legezketasunaren berrikuspenean adostutako prozedurei buruzko txosten bat egiten dela. Txosten horiek auditoretza pribatuko enpresek egiten dituzte, eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Finantza Kontrol Iraunkorrerako eta Auditoretzako Zerbitzuak gainbegiratzen ditu.

III. HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Honako hauek dira lan honen helburuak, Parlamentuak egindako eskaria kontuan hartuta:

- Fundazioaren kudeaketarekin lotutako alderdi batzuen bilakaera aztertzea.
- Kontuen Ganberak Fundazioari buruz 2016ko irailean emandako txosteneko gomendioen betetze-mailaren jarraipena egitea.
- 2019. eta 2020. urteetako langileen, ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioen legezketasuna berrikustea.

Gure lanaren denbora-norainokoa 2016-2020 aldiari dagokiona da. Honako hau da aztertutako informazioa:

- Fundazioaren kudeaketa-adierazleak, gastuekin, diru-sarrerekin, finantzaketarekin, langileekin eta jarduerarekin lotutakoak.
- Ganbera honek 2016ko iraileko txostenean egindako gomendioak.
- Langileen kontratazioen eta ondasun eta zerbitzuetako gastu arrunten lagin bat.
- Finantza-auditoretzako txostenak eta Fundazioaren legezketasunari buruz adostutako prozeduren txostenak, Finantza Kontrol Iraunkorreko eta Auditoretzako Zerbitzuak gainbegiratuta.
- NFKAren aurrekontu-partidak, Fundazioarentzako direnak.
- Fundazioari aplikatzekoa zaion araudia.

IV. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK

Fundazioaren erantzukizuna

Fundazioaren Zuzendaritza da kudeaketaren arduraduna, bai eta beharrezkotzat jotzen dituen barne-kontrolako sistemak ezartzearen arduraduna ere, Fundazioaren jarduerak legezko ez-betetzetik eta iruzur edo akatsen ondoriozko akats materialik ez duela izanen bermatzeko.

Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna da geure fiskalizazioan oinarritutako konklusio bat adieraztea, Fundazioaren kudeaketaren alderdi jakin batzuen bilakaerari, Ganberak egindako gomendioen betetze-mailari eta langileak, ondasun arruntak eta zerbitzuak kontratatzeke legezkotasunari dagokienez.

Horretarako, erantzukizun hori bete dugu kanpo kontrolako erakunde publikoen oinarritzko fiskalizazio-printzipioei heldurik. Printzipio horiek behartzen gaituzte etika-eskakizunak betetzera eta auditoretza halako moduz planifikatu eta egitera non ezagutza egokia lortuko baitugu gomendioak betetze aldera erabilitako prozedurez, kasua bada, bai eta taxuzko ziurtasun bat ere, informazioa oker materialik gabekoa eta alderdi adierazgarri guztietan araudi indardunaren arabekoa izateari buruz.

Fiskalizazio batek prozedurak aplikatzea eskatzen du, auditoretza-ebidentzia lortzeko gure txostenean emandako gomendioak betetzeari buruz eta langileen eta ondasun arruntan eta zerbitzuen kontratazioaren legezkotasunari buruz. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabekoak dira, barne dela akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean. Arriskuari buruzko balorazio horiek egitean, auditoreak beharrezkoa den barne kontrola hartzen du kontuan —gomendioak betetzeko eta legeak betetzen dituela bermatzeko—, horrela diseinatze aldera inguruabarren arabera egoki diren auditoretza-prozedurak, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez.

Auditoretza batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta zuzendaritzak egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, kasua bada, bai eta urteko kontuen aurkezpena ere.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak behar adinako eta behar bezalako oinarria ematen du gure iritzia eta konklusioak funtsatzeko.

IV.1. MIGUEL SERVET FUNDAZIOAREN KUDEAKETARI BURUZKO ALDERDI OROKORRAK

Ondoren, Fundazioaren kudeaketarekin zerikusia duten alderdi batzuen 2016-2020 aldiaren bilakaera aztertuko dugu.

Fundazioaren gastuak


Hona hemen Fundazioaren gastuen 2016-2020 aldiko bilakaera, auditatutako urteko kontuei jarraituz:

	2016	2017	2018	2019	2020	Aldea (%) 2020/16	Aldea (%) 2020/19
Langile-gastuak	2.404.592	2.622.620	3.193.278	4.027.948	4.213.044	75	5
Ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuak	1.568.238	2.590.270	2.318.846	3.044.683	2.114.540	35	-31
Bestelakoak	780.533*	226.103	314.187	439.642	375.476	-52	-15
Guztira	4.753.363	5.438.993	5.826.311	7.512.273	6.703.060	41	-11

* 2016an, Espainia-Frantzia-Andorra Mugaz Gaiandiko Lankidetzarako Programa Operatiboaren (POCTEFA) jarraibideen arabera, dirulaguntza eskueldatu zitzaizen Pirinioez haraindiko lankidetzaren sarearen proiektuaren (REFBIO) onuradunei, ikerketa-jarduerak gauzatzeko; guztira, 589.000 euro izan ziren.

Fundazioaren gastuak, 2020an, 6,70 milioikoak izan ziren. Zenbateko horrek ehuneko 41eko hazkundera izan zuen 2016. urtearekin alderatuta, erakundearen jarduerak gora egin zuelako eta, horren ondorioz, langileen eta ondasun eta zerbitzuen gastuak ehuneko 75 eta 35 igo zirelako, hurrenez hurren. 2019. urtearekin alderatuta, berriz, gastuak ehuneko 11 jaitsi ziren, COVID-19aren krisiak ondasun eta zerbitzuetan eragindako gastuak ehuneko 31 jaitsi zirelako.

Hurrengo grafikoak erakusten du gastu-kontzeptu bakoitzak guztizkoaren gainean 2016-2020 aldian egiten duen ehunekoa:



Langileen gastuak guztizkoaren ehuneko 54 dira aldi osoan, baina ehuneko hori ehuneko 63ra igo zen 2020an; ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak (hornidurak eta ustiapeneko beste gastu batzuk) aldiko gastuen ehuneko 39 dira (2020an ehuneko 31 izan ziren), eta gainerako ehuneko zazpia beste gastu batzuk dira, batez ere amortizazioak.

Fundazioaren langileak

Honako hauek ziren Fundazioaren langileak abenduaren 31n, 2016-2020 aldian izandako arduraldiaren arabera:

	2016	2017	2018	2019	2020	2020/2016 aldea (%)	2020/2019 aldea (%)
Egiturazko langile propioak:	38	39	41	48	53	39	10
Zuzendaritza	2	2	2	2	2	-	-
Administrazioa eta ikerketarako laguntza	23	23	24	26	29	26	12
Ikertzaileak	13	14	15	20	22	69	10
Proiektuetarako kontratatutako langileak	42	52	67	59	66	57	12
Guztira	80	91	108	107	119	49	11

2020ko abenduaren 31n, langileak ehuneko 49 eta 11 igo ziren 2016ko eta 2019ko datuekin alderatuta, hurrenez hurren. 2020ko abenduaren 31n 119 langile zeuden kontratatuta, guztira; horietatik 53 egiturazkoak ziren (ehuneko 45) eta 66 ikerketa-proiektuetakoak (ehuneko 55).

Aldi osoan, Fundazioko egiturazko langileak (zuzendaritza, administrazioa eta ikerketako laguntza eta ikertzailea) guztizkoaren % 44 dira batez beste, eta proiektuetarako kontratatutakoak, berriz, % 56.

Bestalde, Fundazioko batez besteko langileak honako hauek izan ziren aztertutako urte bakoitzean:

	2016	2017	2018	2019	2020	2020/16 aldea (%)	2020/19 aldea (%)
Batez besteko langileak, urtean zehar	65,13	68,21	79,62	102,64	108,26	66	5

2020an, 108 pertsonak lan egin zuten Fundazioan; horrek esan nahi du ehuneko 66ko eta ehuneko 5eko igoera egon dela 2016an eta 2019an, hurrenez hurren.


Fundazioaren finantzaketa

Fundazioak 2016-2020 aldian lortutako finantzaketaren bilakaera, erakunde horrek emandako datuen arabera, honako hau da:

	2016	2017	2018	2019	2020	Aldea (%) 2020/16	Aldea (%) 2020/19
Ikerkuntza:	2.297.412	3.795.165	3.881.438	5.351.656	5.136.317	124	-4
Autonomikoa	1.426.477	2.182.164	2.008.541	3.733.399	3.042.406	113	-19
Plan Nazionala	678.253	638.532	865.907	742.570	1.156.431	71	56
Europako funtsak	148.682	503.331	558.953	455.594	560.698	277	23
Bestelakoak	44.000	471.138	448.037	420.093	376.782	756	-10
Egiturazkoa (NFKA)	1.350.000	2.700.000	3.225.000	3.370.000	3.500.000	159	4
Finantzaketa, guztira	3.647.412	6.495.165	7.106.438	8.721.656	8.636.317	137	-1

2020an, Fundazioak 8,64 milioi euroko finantzaketa lortu zuen guztira; hau da, 2016an baino ehuneko 137 gehiago, baina 2019an baino ehuneko bat gutxiago.

Aztertutako aldiak, ikerketarako zuzenean emandako finantzaketa guztizkoaren ehuneko 59 da, eta egiturazkoa, NFKAtik jasotako diru-sarrerekin bat datorrena, gainerako ehuneko 41a. Irudi honek finantzaketaren osagai bakoitzaren bilakaera erakusten du:



Fundazioaren funts propioak eta diruzaintza

Fundazioaren funts propioek eta diruzaintzak honako balio hauek izan zituzten aztertutako al-dian:

	2016	2017	2018	2019	2020	Aldea (%) 2020/2016	Aldea (%) 2020/2019
Funts propioak	342.922	791.971	1.083.844	1.119.299	1.284.343	275	15
Diruzaintza	2.077.806	2.048.501	4.844.704	5.275.111	7.694.038	270	46

2020an, Fundazioaren funts propioak 1,28 milioira iritsi ziren, 2016an eta 2019an baino % 275 eta % 15 gehiago hazi ondoren, batez ere finantzaketa handiagoa lortu zelako.

Diruzaintzari dagokionez, 2020an 7,69 milioira iritsi da, eta kopuru hori ere nabarmen igo da, 270 eta 46 milioi euro, 2016. eta 2019. urteekin alderatuta. Igoera hori saiakuntza klinikoei lotu-tako diru-sarrerek eta urte anitzeko dirulaguntza batzuen kobrantza aurreratuek eragin dute batez ere.

Fundazioaren jarduera

2016-2020 aldian, honako hau izan zen Fundazioaren jardueraren bilakaera:

	2016	2017	2018	2019	2020	Aldea (%) 2020/2016	Aldea (%) 2020/2019
Proiektuak:							
Eskatutakoak	118	124	100	120	108	-8	-10
Emandakoak	40	39	27	39	41	2	5
Emandakoak/eskatutakoak (%)	34	31	27	33	38	12	17
Indardunak	76	115	94	115	129	70	12
Entsegu klinikoak:							
Hasitakoak	95	75	81	82	80	-16	-2
Indardunak	100	139	161	202	217	117	7

2020an, Fundazioak 41 proiektuentzako finantzaketa lortu zuen, aztertutako aldiko gainerako urteetan izandakoaren antzekoa, 2018an izan ezik, orduan 27 proiektuentzako laguntza izan baitzen. Lortutako proiektuen ehuneko handiena eskatutakoen artean lortu da, eta balio handiena 2020an lortu da (ehuneko 38). 2020koa da, halaber, proiektu gehien lantzen ari den urtea, 129 proiektuekin ari baita, 2016an eta 2019an baino % 70 eta % 12 gehiago, hurrenez hurren.

Bestetik, Fundazioak entsegu klinikoak ere egiten ditu. 2020an 80 entsegu hasi ziren (kasu honetan, kopurua 2016koa eta 2019koa baino ehuneko 16 txikiagoa eta ehuneko bi txikiagoa) eta 217 indarrean zeuden; zenbateko hori aztertutako aldiko baliorik handiena da.

Fundazioaren auditoretzari eta legezketasunaren gaineko prozedura adostuei buruzko txostenak

2016-2020 aldian, kontuei buruzko txostenen iritzia ez zen aldatu edo aldekoa izan zen urte guztietan, salbuespenik gabe, 2017an izan ezik; izan ere, 2017an salbuespen bat adierazi zen, balantzeko partidetan 0,17 milioi euroko dirulaguntzak behar bezala aurkeztu eta esleitzeari da-gokionez.

Bestalde, 2017. urteaz geroztik, auditoretza-enpresa pribatuek legezketasuna berrikusteko adostutako prozedurei buruzko txosten bat egiten da, Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Finantza Kontrol Iraunkorreko eta Auditoretzako Zerbitzuak gainbegiratzen duena.

2017an eta 2018an, berrikuspenaren emaitza aldekoa izan zen, baina ohar bat jaso zen, lan-gileen berrezarpen-tasa eta egonkortze-tasa, hurrenez hurren, aplikatzean araudia ez aplika-tzeari buruz; 2019an, ordea, ondorioa aldekoa izan zen. Txosten hau idazteko unean, amaitzeke dago 2020ko berrikuspena.

IV.2. KONTUEN GANBERAK MIGUEL SERVET FUNDAZIOARI BURUZ 2016ko IRAILEAN EMANDAKO TXOSTENEN GOMENDIOEN BETETZE-MAILAREN JARRAIPENA.

2016ko irailean, Kontuen Ganberak Fundazioari buruzko txosten bat egin zuen. Txosten horren ondorio nagusiak txosten honekin batera doan eranskinean daude zehaztuta.

Txostenak hamabi gomendio zituen; gomendio bakoitzaren betetze-maila irizpide hauen arabera kalifikatu dugu:

Kategoria	Deskribapena
Osoan edo funtsean aplikatua	Baldin eta zuzentze-neurriak –zentzuzkoak eta proportzionalak– hartu badira, horri buruzko behar adinako ebidentzia egonik, modua ematen dutenak irizteko ezen gomendioa eraginkorra izan dela eta ez dela ebazkizun geratu munta nabarmeneko inolako gairik.
Partzialki aplikatua	Baldin gomendioa aintzat hartu bada, akatsak, ahuleziak edo gabeziak zuzentzeko urratsak egin dira, baina hasierako fasean baino ez, haien parte batean bakarrik edo alderdiren batean baino ez, eta, ondorioz, gomendioa moduz bete izandakotzat jo ezin izanik.
Aplikatu gabea	Ez bada egin akatsak, ahuleziak edo gabeziak zuzentzeko jarduketarik, edo eginiko jarduketak ez badira aski edo ez badira egokiro egin, halako moldez non gomendioak aplikatu gabe jarraitzen duen.
Baliogabea egungo egoeran.	Txostena egin zenean balioduna eta egokia izan arren, egungo testuinguruan ezin aplikatuzkoa den gomendioa, horretarako moduko zirkunstantziarik ez dagoenez edo txostena egin zen uneko egokiera bera gertatzen ez denez.
Egiaztatu gabea	Gomendio bat, zeinak froga gehigarriak beharko bailituzke azaldutakoa ziurtatzeko, are enteak aplikatu egin badu ere.

Jarraian, Kontuen Ganberaren 2016ko iraileko txostenean jasotako gomendio bakoitzerako lortutako emaitzak azalduko ditugu:

- *Navarrabiomedek egiten duen osasun ikerketa publikorako plan estrategiko bat egitea, zeinak, besteak beste, ikerketaren helburuak, ikerketaren eredia eta zertarakoa, eredu horretarako behar den egitura finkoa eta haren finantzaketa ezarriko baititu.*

- *Plan estrategikoa egitean, beste laguntza-arlo batzuekin batera, kontuan hartu beharra dago osasun publikoaren eta oinarrizko osasun laguntzaren arloetan ikertzeko aukera eta komenigarritasuna, bai eta, Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin sinatutako hitzarmenaren ondoren, arlo teknologikoetan ere, ingeniari-tza-eskolarekiko koordinazioari esker.*

- *Plan estrategikoak jaso beharra dauka Fundazioan jatorri desberdinetako langileek lan egiten dutela (Fundaziokoak, NUPekoak, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko laguntzako langileak, egiturazko edo proiektuetako langileak, IdiSNAkoak eta abar), eta lan-baldintza desberdinak dituztela; hori dela eta, ahal den neurrian, alderdi horiek arautu behar dira.*

Hiru gomendio hauek erabat edo nabarmenki aplikatu dira. Plan estrategikoa 2017ko abenduan onetsi zen, eta gomendioetan aipatutako alderdi ia guztiak jaso zituen.

- *Ikerketak legegintzaldi politikoek izaten duten iraupenaz haratago doazen epeak behar ditu; hori dela eta, komenigarria izanen litzateke metodo batzuk ezartzea ikerlanen egonkortasuna bermatuko dutenak ikerketa-erritmoei egokitutako planekin.*

Gomendio hau erabat aplikatu da. 2018an egindako estatutu-aldaketan, zuzendariaren kargua sei urterako izatea jaso zen, eta beste hiru urtez luzatu ahal izatea; horrek bermatzen du lanpostuan egonkortasun handiagoa izatea.

- *IdiSNAren erregulazioa osatzea, batez ere gai administratiboei, akreditazio prozesua amaitzei eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren integrazioari dagokienez.*

Gomendio hau erabat aplikatu da. 2017ko maiatzean, Nafarroako Unibertsitate Publikoa IdiSNA n sartu zen, eta horrek behin betiko egituratzea eman zion institutuari. Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioak osasun-ikerketako institutuko akreditazioa eman zion IdiSNAri 2019ko urtarrilean, ministro-agindu baten bidez.

- *Behar diren jarduketak egitea Navarrabiomed Osasun Departamentuaren multzoan sar dadin espezialitateetako eta oinarriko osasun laguntzako langileen lanean laguntzen duen eta lan horiosatzen duen "zerbitzu" gisa.*

Gomendio hau erabat aplikatu da. Gomendio horrekin Fundazioaren finantzaketaren egonkortasuna lortu nahi zen; izan ere, Ganberaren txostenaren aurretik, Fundazioak jasotzen zuen finantzaketa hainbat departamentutatik zetorren, baina finantzaketa-eredua aldatu egin da eta transferentzia bakarra egiten zaio Fundazioari Osasun Departamentutik.

- *Aztertzea ea osasun langileen kasuan zuzen aplikatzen ari ote diren ikerketarako estimulu edo pizgarriak, lanbide-karrera edo ordainsariak bezalako eraginetarako, zeren eta, esate baterako, araudiak ez baitu aukerarik ematen ikerketa-lanengatik osagarriak jasotzeko, baina bai saiakuntza klinikoak egiteagatik.*

Gomendio hori NFKAren eskumena bada ere, Fundazioaren Patronatuak onetsi zuen jarduna ebaluatzeko sistema bat ezartzea. Sistema horretan, zazpi soldata-banda ezartzen dira, lortutako merezimenduen eta antzinatasunaren arabera. Sistema hori 2021ean hasi da aplikatzen.

- *Oro har, ulertzen dugu ezen, bai ingurumen-arrazoiengatik, bai etorkizuneko mantentze-kostuei begira, kalifikazio energetikoari dagokiona kontuan hartu beharreko faktore gisa aintzatesi behar dela Administrazioak eraikin berriak egiten dituenan.*

Gomendio hori ez da egiaztatu, zeren eta, oro har, NFKAri zuzenduta baitzegoen; hori dela eta, lan honen irismenetik kanpo geratzen da.

- *Aztertzea zein den Fundazioaren kudeaketarako hitzarmen egokiena, kontuan izanda lan mota desberdinak, lan baldintzak eta langileek jatorria; eta hitzarmen hori langile guztiei aplikatzeko aukera jasotzea.*

Gomendio hau erabat aplikatu da. Fundazioaren Patronatuak berriazko plan bat landu du Fundazioarentzat, eta bertan jaso ditu gomendioak aipatutako elementuak. 2021ean hasi da aplikatzen gomendio hori.

- *Idatzizko prozedura batzuk ezartzea, Patronatuak onetsiak, non hainbat arlotako betebeharrak jasoko baitira: publizitatea, hautapen-organoen osaketa, hautatze-sistemak eta abar. Ildo bereko iritzia eman zuen Arartekoak 2014ko martxoaren 25eko ebazpenean.*

Gomendio hau partzialki aplikatu da. Egiaztatu dugu Patronatuak kontratazio-prozedura batzuk onetsi eta ezarri dituela; hala ere, hurrengo atalean zehazten dugun laginaren berrikuspentik ondoriozta dezakegu enplegu-eskaintzen publizitatea ez dela nahikoa, hautaketa-batzordea ez dagoela bost kidez osatuta, Arartekoak bere ebazpenean adierazten zuen bezala, eta ez dela hautagaien gaitasuna baliozkotzeko proba gehigarririk egiten.

- *Kasuko kontratazio prozedura izapidetzea legeak ezarritako mugak gainditzen dituzten ohiko zerbitzuetan.*

- *Bestelako zerbitzu eta material suntsigarriko horniduretan, aztertzea kasuko kontratazio-prozedura izapide daitekeen, haietan urteko gastua aurreikusten eta zentralizatzen zaila baita eta, gainera, fundazioetarako araudian ezarritako muga, 15.000 eurokoa, gainditzen baita berez.*

Aurreko bi gomendioak osorik aplikatu dira beren zenbatekoagatik hala eskatzen zuten lizitazio guztietan.

IV.3. LEGEZKOTASUNAREN BERRIKUSPENA LANGILEEN ETA ONDASUN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOAN

Langileen, ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioen lagin bat berrikusi dugu.

Zehazki, langileak hautatzeko 11 prozesu berrikusi dira 2018-2020 aldian, eta horietan egiaz-tatu da enplegu-eskaintzen publizitatea, oro har, web-orrian eta sare sozialetan egiten dela, eta gaitasun-printzipioa *curriculum vitae*an eta elkarrizketa pertsonal batean aurkeztutako betekizun-ak baloratzuz aplikatzen dela, idatzizko probarik egin gabe.

Bestalde, ondasun arrunten eta zerbitzuen bost kontraturen lizitazioa eta esleipena aztertu di-tugu. Egindako azterketatik ondoriozta dezakegu, oro har, aplikatu beharreko araudia betetzen dela, baina honako alderdi hauek aipatuko ditugu:

- Lizitatzailerei esleitutako puntuazioei eusten dien txosten teknikorik ez dago.
- Kontratazio-mahaiak egindako ekitaldiei buruzko akta guztiak ez daude jasota.
- Nafarroako Kontratazioaren Atarian ez dira kontratazio-mahaiaren aktak argitaratzen.

Gure gomendioak:

- *Lizitatzailerei esleitutako puntuazioak justifikatzen dituzten txosten teknikoak egitea.*
- *Kontratazio-mahaiak egindako ekitaldiei buruzko akta guztiak egitea.*
- *Mahaiaren aktak argitaratzea Nafarroako Kontratazioaren Atarian.*
- *Eskaintako lanpostuetarako izangaien gaitasuna baloratzeko proba gehigarriak egitea.*
- *Lanpostuen eskaintzen publizitatea zabaltzea.*

IV.4. AMAIERAKO KONKLUSIOA

Fundazioa NFKAri laguntza zientifiko eta tekniko ematen dion erakundea da, osasun-arloko ikerketa eta berrikuntza sortu, sustatu, bultzatu eta garatzeko. Fundazioak 129 proiektu eta 217 entsegu kliniko egin zituen 2020an.

2020an, Fundazioaren gastuak 6,70 milioikoak izan ziren, eta horietatik 4,21 milioi (ehuneko 63) langile-gastuei zegozkien; ekitaldi honetako abenduaren 31n, 119 pertsonak lan egiten zuten Fundazioan, eta horietatik 66 (ehuneko 55) ikerketa-proiektu zehatzetarako kontratatu ziren. Era-kunde horrek 8,4 milioi euroko finantzaketa lortu zuen; horietatik, 5,14 milioi ikerketa-jardueratik datoz, eta 3,50 milioi, berriz, NFKAtik. 2016. urtearekin alderatuta, gastuek eta diru-sarrerek go-ranzko joera antzekoa izan dute, ehuneko 41 eta 40 igo baitira, hurrenez hurren.

Fundazioaren finantza-egoera nabarmen hobetu da aztertutako aldian, eta nabarmen handitu dira funts propioak (ehuneko 275), diruzaintza (ehuneko 270) eta jasotako finantzaketa (ehuneko 137), bai egiturazkoa (ehuneko 159), bai hainbat erakundetatik datorren ikerketara bideratutakoa (ehuneko 124).

Fundazioaren 2020ko urteko kontuak auditatuak izan dira, eta auditoreek aldeko iritzia eman dute.

Kontuen Ganberak 2016an Fundazioari buruzko txosten bat argitaratu zuen, 12 gomendio-rekin. Egiaz-tatu dugu ezen 12 gomendioetatik 11 ezarri direla, zeren eta horietako bakoitzaren har-tzailea NFKA baitzen, eta ez dira lan honen norainokoan sartu; halere, oraindik ere betetzeke geratu da alderdiren bat langileen kontratazioen kasuan.

Auditore Karen Moreno Orduña andrea izan da txosten hau egitearen arduradun, eta berak proposatuta egin da, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2021eko ekainaren 24an

Lehendakaria,
Asunción Olaechea Estanga

ERANSKINA. KONTUEN GANBERAK MIGUEL SERVET-NAVARRABIOMED FUNDAZIOARI BURUZ 2016KO IRAILEAN EMANDAKO TXOSTENeko GOMENDIOEN BETETZE-MAILAREN TXOSTE-NEKO KONKLUSIOAK.

Eginiko lanean oinarriturik, honako ondorio hauek atera ditugu:

Antolamendua.

1.a) Azken urte hauetan, Nafarroako Gobernuak osasun arloari buruzko ikerketa bultzatu du, Nafarroako etorkizun ekonomikoaren zutabeetako bat izan dadin. Horri dagokionez, alderdi esanguratsuenen artean aipa daiteke Navarrabiomeden sorrera, IdiSNA abian jartzeko akordioak eta ospitalearen barrutian ikerketa-zentroaren egoitza izanzen zen eraikina egin izana.

2.a) Hainbat plan orokor badaude ere, Navarrabiomeden sorrerak eta ezarpenak ez du plan estrategiko berekirik izan. Izan ere, horrek berarekin ekarri du ikerketaren helburu batzuk ez izatea; hain zuzen ere, finkatutako irizpide batzuk, haien gainean funtzionamendurako gutxieneko egitura bat eraiki ahal izateko, eta haiek finantzatzeko modua falta izan dira.

3.a) Aurrekontu-ahalegin handiena eraikina egitea izan da, 21,1 milioiko kostua izan baitu. Proiektuak aurreikusten zuen, eraikina aldi baterako biltegi gisa erabiltzea, eta laborategia ezarri da bertan; beraz, honako hau da haren egungo erabilera:

Erabilera	Metro koadroak	Ehunekoa
Navarrabiomed	3.972	34
Laborategia	2.637	22
Biltegia	2.379	20
Liburutegia	375	3
Komunak	2.402	21
Guztira	11.765	100

Esanguratsua da eraikinaren kalifikazio energetikoa "G" dela, hau da, efizientzia txikienakoa.

4.a) Nafarroak ez du ikerketarako institutu ziurtaturik. Osasun Departamentuaren eta Nafarroako Unibertsitatearen arteko lankidetzak da Nafarroak osasun ikerketarako zentro ziurtatu bat edukitzea bermatzeko modua, hartara Carlos III.a zentroak osasun ikerketarako ematen dituen funtsak errazago eskuratu ahal izateko. Hori dela eta, exijitzen diren baldintzak betetzen ez direnez, 2014an, IdiSNA aktibatuta da, eta institutu horrek ziurtagiria eskatu du, aldeztu aurretiko auditoretza gairatu du eta zenbait proiektutarako finantzaketa lortu du 2015erako.

Eredu konplexu horrek, non batera baitaude ikerketa publikoko zentroa, Unibertsitatearen zentro pribatua eta IdiSNAren bitartezko batera biltzea, funtzionamendurako akordio eta hitzarmen batzuk badauzka, nahiz eta gure ustez oraindik ere definitzeko eta zehazteko gelditu diren funtzionamendurako prozedura administratiboak.

Fundazioaren kontuak eta finantzaketa

5.a) Miguel Servet Navarrabiomed Fundazioaren kontuak kanpoko enpresa batek auditatzen ditu, eta aldeko iritzia ematen du urtero.

6.a) Orokorrean, Miguel Servet Fundazioaren jardura aplikatzekoa zaion araudiaren arabera egiten da.

7.a) 2015ean, lehenengo aldiz, galerak izan ziren, 486.707 eurokoak. Eraitza hori gertatzen da nagusiki ikerketarako jasotako dirulaguntzek finantzatzen ez dituzten gastuek egiturazko finantzaketaren zenbatekoak (Osasun Departamentuaren ekarpena eta egiturazko gastuetarako proiektuak) gairatzen dituztelako.

Horri dagokionez, esan beharra daukagu ezen 2009tik 2014ra Miguel Servet Fundazioak Europako Gizarte Funtsetik heldu diren diru-sarrerak kontabilizatu dituela, 831.103 eurokoak; 2015erako aurreiku-

sitakoetatik, berriz, ez du ezer ere jaso kontzeptu hori dela-eta, eta horixe da ekitaldiko galeren arrazoi nagusia.

2015eko abenduaren 31n erabilgarri dauden baliabide garbiak, diruzaintza-gerakinaren egoera-orri bat eginez lortutakoak 167.264 euro negatiboak dira; horrek esan nahi du 2015ean ikerketarako bideratzekoa zen diruzaintza-aurrerakina egiturazko gastuak finantzatzeko erabili dela, proiektuei egoztekoak zaizkien kostuez gorako portzentajearen erabili ere.

8.a) Ondare garbia positiboa bada ere, funts berekiak negatiboak dira 2015ean, ekitaldiko emaitzaren ondorioz eta aurreko urteetako emaitzetan egindako doikuntzen ondorioz. Egoera hori zuzendu egin beharko litzateke.

9.a) Miguel Servet Fundazioaren guztizko gastu korranteak (langileak eta erosketak) 3,7 milioikoak izan ziren 2015ean; horrek esan nahi du 2009ko gastuekin alderatuta ehuneko 191ko igoera gertatu dela.

10.a) Fundazioaren egituraren finantzaketa hurrengo taulatik ondorioztatzen dena izan da 2015ean:

Gastuak	Finantzaketa			
	Zenbatekoa	Nafarroako Gobernua	Ekarpenak Proiektuak	Saldoa
Langileak	1.437.389			
Funtzionamendua	384.122			
Navarrabiomedek ordaindutakoak, guztira	1.821.511	985.000	299.105	-537.406
Funtzionamendua. O-NOZek ordaindutakoak	142.675	142.675		0
Guztira	1.964.186	1.127.675	299.105	-537.406

Ikusten da 2015ean egiturarako finantzaketa ez dela nahikoa izan gastu horiei aurre egiteko.

11.a) 2012-2015 aldian, Osasun Departamentuak honako gastu-zenbateko hauek izan ditu osasun ikerketaren arloa dela-eta:

Kontzeptua	Zenbatekoa (milioiak)	Ehunekoa
Departamentuaren 2012-2015 aldiko gastuak, guztira	3.710	
Ikerketarekin lotutako programak*	12,9	0,35
Berezko ikerketa	4,9	0,13

* Zentroaren eraikuntza kontuan hartu gabe

Gainera, kontuan hartu beharra dago Industria Departamentuaren Plan Teknologikoaren zenbateko batzuk osasun-ikerketarakoak izan daitezkeela. Plan Teknologikoaren guztizko gastua 83,3 milioikoa da aipatutako aldian. Miguel Servet Fundazioak 99.205 euro jaso ditu 2012-2015 aldian.

Miguel Servet-Navarrabiomed Fundazioaren jarduera

12.a) Bere jarduera egiteko, 2015ean, Fundazioak lanaldi osoko 108 eta 66 langile baliokide bitarte izan ditu.

Abenduaren 31n honako hauek ziren fundazioan lan egiten zuten pertsonak:

Kontzeptua	Pertsona-kopurua
Zuzendaritza	2
Administrazioa, proiektuen kudeaketa, metodologia, komunikazioa, plataformak eta ikertzaile berekiak	40
Egituraren guztizkoa, honaino	42
Proiektu jakin batzuetarako ikertzaileak eta bestelako kontratatuak, proiektu hauen bidez finantzatuak	33
Guztira	75

Gainera, fundazioaren esparruan Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko laguntzako langile batzuek egiten dute lan, zeinek ikerketa-proiektuak egiten baitituzte fundaziokoak izan gabe: 256 inguru ziren arduraldi-maila desberdinekin.

2009tik 2015era, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zen Ikerketa Biomedikorako Zentroari atxikitako langileak kontuan hartu gabe, Miguel Servet fundazioan urtean zehar lan egiten zuten pertsonen batezbestekoa 11,6koa izatetik 65,8koa izatera pasatu da, eta jarduerarako diru-sarrerak, berriz, 0,8 milioikoak izatetik 3,6 milioikoak izatera; horrek adierazten digu fundazioaren jarduerak gora egin duela.

13.a) 2012tik 2015era, ikerketa-proiektuetarako kobratutako diru-sarrerek honako jatorri hau zeukaten:

Finantzatzailea	Diru-sarrerak	Proiektu kopurua	Proiektu bakoitzaren batez besteko zenbatekoa
Estatua	2.503.706	29	86.335
Europa	448.125	3	149.375
Nafarroako Gobernua	431.335	12	35.945
Bestelakoak	411.999	14	29.428
Guztira, oro har	3.795.165	58	65.434

Zenbateko horretatik, Carlos III.a Institutuak 2.070.071 euro jarri ditu; hau da, ehuneko 55.

14.a) Alde handia dago 58 ikerketa-proiektuen diru-zenbatekoetan, 4.235 eurotik hasi eta 358.000 eurora bitartekoak baitira; batezbestekoa 65.434 eurokoa da.

15.a) Ikerketa arloen arabera, minbiziak, 20 proiektuekin, eta kardiologiak, 5 proiektuekin, zenbatekoaren ehuneko 51 egiten dute.

16.a) Ikertzaile nagusiaren jatorrizko zentroari erreparatuta, ikerketarako lortutako zenbatekoaren ehuneko 54 Miguel Servet-Navarrabiomed Fundazioko ikertzaileek lortu dute: 2 milioi euro.

17.a) Saiakuntza klinikoei erreparatuta, 2012-2015 aldian 614 saiakuntza egin dira, eta guztira 2,4 milioi euroko kostua izan dute. Hematologia-zerbitzukoek, 178 saiakuntzarekin, eta onkologia-zerbitzukoek, 163 saiakuntzarekin, zenbatekoaren ehuneko 60 egiten dute.

Laburbilduz, eta ondorio orokor gisa, azken urteetan ikusi dugu Nafarroako Gobernuak osasun-ikerketaren aldeko apustua egin duela, Miguel Servet-Navarrabiomed Fundazioaren bitartez, zeinak bere jarduera eta aurrekontuak handitu baititu. Hala eta guztiz ere, aipatu beharra dago kopururik handiena eraikina egitera bideratu dela.

Osasun Departamentuak hertsiki osasun arloko ikerketara bideratutako aurrekontua departamentuaren guztizko gastuen ehuneko 0,13 egiten du 2012-2015 aldian.

Nafarroak ez du Carlos III.a Osasun Institutuak ziurtatutako osasun ikerketarako instituturik, eta exijitzen diren baldintzak betetzeko zailtasunak direla-eta, erabaki da hori lortzeko lankidetzak publiko-pribatura jotzea, IdiSNA berrabiatuz. Institutu horretan, Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Unibertsitateak dihardute lankidetzan, eta espero da Nafarroako Unibertsitate Publikoa ere sartzea. IdiSNAk ziurtagiria eskatu du, baina txosten hau idazteko datan oraindik ere ez zaio eman.

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Kontuen Ganberak egindako "Miguel Servet Fundazioari buruzko gomendioen jarraipena" behin-behineko fiskalizazio-txostena berrikusi ondoren, "Fundazioaren auditoretzari eta legezkotasunaren gaineko prozedura adostuei buruzko txostenak" paragrafoari buruzko alegazio bat sartzeko eskatzen dugu, IV. Konklusioak eta gomendioak ataleko V.1. Miguel Servet Fundazioaren kudeaketari buruzko alderdi orokorrak izeneko azpialaren barruan.

Honako hau da orain behin-behineko txostenaren 11. orrialdean ageri den paragrafoa:

"2017an eta 2018an, berrikuspenaren emaitza aldekoa izan zen, baina ohar bat sartu zen, langileen berrezarpen-tasa eta egonkortze-tasa, hurrenez hurren, aplikatzean araudia ez aplikatzeari buruz; 2019an, ordea, ondorioa aldekoa izan zen. Txosten hau idazteko unean, amaitzeke dago 2020ko berrikuspena".

Uste dugu paragrafo horren deskribapenak ez duela behar bezala islatzen Fundazioaren funtzionamendua, zeren eta berrezarpen-tasa oso kontuan hartzen baitugu, eta testuak aditzera ematen du 2017an eta 2018an araudia ez dela aplikatu. Egia esan, argitaratu zenetik, une oro aplikatzen saiatu gara, 2017an izan ezik, urte horretan argitaratu baitzen, eta 2018an izan ezik, kontratu bakar batean gainditzen baita berrezarpen-tasa, lan-legea betetzeko betebeharra dela eta.

Hori dela eta, eskatzen dugu lehen aipatutako paragrafoaren ordeztu, txostenaren zirriborroan egindako iruzkina jasotzea:

"Langileen kontratazioan urtero aplikatu da sektore publiko autonomikoko fundazioen berrezarpen-tasa. Dagokion Aurrekontuen Legean ezarritako baldintzak bete dira, 2017an izan ezik, fundazioetara hedatutako araudi hori sartu zen lehen urtean, eta 2018an izan ezik, zeinean berrikuspen horren emaitza izan baitzen berrezarpen-tasa bete egiten zela, nahiz eta kontratu batean aldi baterako enpleguaren egonkortze-tasa gainditu. Fundazioak mugagabeko kontratazio hori egin behar izan zuen, kontraturiko subjektuaren eta Miguel Servet Fundazioaren arteko lan-harremanaren ondorioz".

Iruñean, 2021eko ekainaren 21ean.

Navarrabiomedeko zuzendaria: Iñigo Lasa Uzcudun

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENA DELA-ETA AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA

Eskerrak ematen dizkiogu Navarrabiomed-Miguel Servet Fundazioko zuzendariari, aurkeztu dizkigun alegazioengatik. Alegazio horiek behin-behineko txostenari eransten zaizkio eta hori behin betikotzat ezartzen da, jotzen baita egindako fiskalizazioaren azalpen bat direla alegazio horiek, eta ez dutela haren edukia aldatzen.

Iruñean, 2021eko ekainaren 24an

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

